

Kri Kri Kri



GIDA DIDAKTIKOA

TEATRO PARAISO ANTZERKIA



1. JOLASTUKO AL DUGU BATERA?

ANTZERKIRA GONBIDAPENA


Irudiz eta galderaz osatutako joko txiki baten bitartez, “Kri Kra Kro” ikuskizunera joateko eta bertako ikusle bihurtzeko, neska-mutilen eta irakasleen desioa suspertzea nahi dugu.

Gutun-azal bat ikasgelara iristen da eta galdera pila bat pilatzen dira neska-mutilen burutxoetan. Zer da? Guretzako al da? Nolako usaia du? Nork ekarri du? Ireki al dezakegu?...

Barruan lau txartel daude. Zer da hau? Zer nolako sorpresak daude barruan?. Txartelak azalera baten gainean jarri eta hauek gordetzen dituzten sekretuak aurkitzen hasten gara galderak egiten jarraitzen ditugun bitartean.

Lehenengo eskutitzean lagun berri bat aurkitzen dugu, Rosi. Rosiri basoko zuhaitzetan irudiak bilatzea gustatzen zaio. Bigarren eskutitzean, beste lagun bat aurkituko dugu, Iñaki, honek hiriko irudiak bilatzen ditu. Hirugarren gutunean, barrez eta gozatzen azaltzen diren begi handiak dituzten neska-mutil batzuen irudi zoragarri bat dago. Laugarren gutunean Rosi eta Iñakik antzerkian egiten dute topo, irudiekin jolasteko ikusleen begiradapean.

Gustatuko litzaizue antzerkira joatea Rosi eta Iñaki ezagutzeko? Ba al dakizue nola duen izena beraien ikuskizunak?...Ba al ditugu sarrerak ikusle izateko? Gai al gara Antzerkiaren etxea nolako den irudikatzeke?...





2. “KRI KRA KRO”: ANTZERKI IKUSKIZUNA

“Kri Kra Kro” Teatro Paraíso Antzerkiak, Belgikako Teatro de la Guimbarderekin batera, 3tik 7 urtetara bitarteko neska-mutilentzat eta familia giroko ikusleentzat zuzendutako ikuskizunaren izenburua da.

Ikuskizun honetan galderek eta irudiek bat egiten dute mundua zirriborro poetiko bat egiteko.

Protagonistak, Bera mutila eta Bera neska, irudiz eta soinu betetako espazio batetako biztanleak dira. Beraien irudimenarekin hau ,modu magiko batetan eraldatzen jolasten dute, unibertso berri bat sortuz, ikusle txikien begiradapean.

Espazio eszenikoak irudiak jokoaren zati bat bezala erakustea ahalbideratzen du, mundua aztertu eta honetaz gozatzeko aukera bat bezala eta ez soilik hau behatzeko aukera bat bezala hain zuzen ere.

Irudiek eta aktoreen jokoak errealitatea ikasi, erakutsi eta marrazteko metafora bat osatzen dute. Irudi hauek, basoa, hiria, museoa...gogorarazten dute eta galderez betetako antzerki poema bat osatzen dute.





3. IRUDI ETA GALDEREN KALEIDOSKOPIOA.

OIHARTZUN ARTISTIKOAK IKASGELAN.

Ikuskizunera joan eta gero irudi eta galderen jokoarekin jarraituko dugu. Hemen agertzen diren aktibitateak egiteko, ikasgela bakoitzean jostailuak edo arropa jasotzeko erabiltzen diren ontzi horietako bat erabiltzea proposatzen dizuegu. Ontzi hau pertsonaia bat izango balitz bezala eraldatuko da eta ondoren opari paperarekin bilduko dugu.

Pakete sorpresa batek espazioa betetzen duten galdera pila bat sortzen ditu: guretako al da? Nondik dator? Zer dago barruan?...

Irekitzerakoan, aktoreek neska mutilak jolastera gonbidatzeko opari bat dela konturatzen gara. Oparia kubo itxura duen pertsonaia misterioitsu bat da, eta berehala jokoa pizten du...

1. PERTSONAIA AURKITZEN.

Pertsonaia ezezaguna lagun berri batean bihur daiteke, baina izen bat aurkitu behar diogu.

Bere irudian, tamainan, kolorean, adierazpenean...pentsatuko dugu. Existitzen den izen bat edota berri bat aurki dezakegu berari jartzeko.

Orain bere izena badakigula, egin dezagun jolas!

2. ETXE BAT LAINOETAN.

Bere barruan, gure pertsonaiak paper eta irudi zatitxoak gordeta dauzka. Hauek, gelako txokoren batean, bera bizitzeko zeru zati bat sortzeko dira. Oso atsegingarria da horrelako

etxe bat edukitzea, berari asko gustatzen baitzaio lainoetan egotea.



3. IRUDI ALDAKETA.


Pertsonaia misterioitsua bere izaera eratzten hasten da izena eta berarekin gelan egindako jolasen bitartez.

Egun batean triste dagoela ohartzen gara. Neska-mutilak beraien janzerak askotan aldatzen dituztela ohartzen da bere irudia beti berdin mantentzen den bitartean.

Berari ere gustatuko litzaioke berokia janzteia hotza dagoenean, arropaz aldatzea hauek zikinak daudenean edo apaintzea dotore egoteko.

Neska-mutilei gure lagunaren irudi pertsonal berria sortzea proposatzen diegu, ehundura, zabalera eta kolore desberdinak dituzten ehunak erabiliz, artilea, botoiak eta begiztak bezalako materialez gain.

aldatzea askotan egin daitekeen jokoa da hau atsegingarria iruditzen bazaie neska mutilei.





4. SORPRESA KAXA.

Benetan gure laguna sorpresaz betetako kaxa bat da. Bere gorputz zuria berari buruzko irudiak sortzeko gonbidapena da. Hauek motibazio desberdinak erabiliz sor daitezke:

- ★ Gure laguna lainoetan bizitzeaz aspertu da eta oihana, hiria, itsasoa... nolakoak izango diren irudikatzen hasten da.
- ★ Gabonetan bere burua jostailuz betetzen da. Ez daki zein aukeratu.
- ★ Berak ez ditu gura familiak ezagutzen. Familia album handi bat sor dezakegu.

Irudi berriak paper zatiak manipulatu eta zuzenean gure lagunaren gorputzean ezarriz sor ditzakegu. Diapositiba edo bideo emanaldiak emateko tresnak baditugu, dagokion euskarrian egin ditzakegu eta ondoren pertsonaiaren gorputzean proiektatu ditzakegu.

Bere gorputz txikia material desberdinekin gauzak egiteko ere erabil dezakegu (margo desberdinak, plastilina, buztina...), ikasgelara iritsi den opari edo gai bati aurre egiteko objektuak hain zuzen ere.

5. GALDERAK PRESTATZEN.

Gure lagunari galderak gustatzen zaizkiola konturatzen gara: handiak, txikiak, konkretuak eta abstraktuak, zuriak eta beltzak, errazak eta zailak, haurrenak zein nagusienak. Hori dela eta pertsonaia ikasgelan egoteak, haurrei galderak egiteko eta adierazteko grina aktibatzeke balio dezake.

Galderak ezagutzaren eta sormenaren oinarria dira. Hauek egiten jakiteko trebatzea, haurrak ahalmen filosofiko, zientifiko eta artistikoak garatzera bultzatzen ditu, hauen munduaren ikuspuntua areagotuz.

Eguna hasteko edo amaitzeko erritual gisa has gaitzke gure lagunarekin galderetara jolasten. Baita momentu zehatzetan, taldearen beharren arabera.

6. COLLAGE HANDI BAT.

Egun batean gure laguna irudi eta margo pila baten gainean esnatzen da. Denon artean collage bat egiteko gonbidapena da. Momentu berezi bat baita: urtebetetze bat, neguaren hasiera, festa bat... Espazio natural edo urbanoen antzezpena ere bultza dezakegu.

Paper zuri handi baten gainean, neska-mutilek aukeratutako irudiak pegatzen dira. Ondoren margoekin apainduko da sorkuntza amaitutzat emateko. Oso interesgarria da irudi handi hori jartzeko leku bat aurkitzea: familiak artatzeko, patioan, liburuaren txokoan, istorioak kontatzeko apaingarri gisa, jan-gelan, festa bat egiteko...



7. ZERGATIIIIK...? ZERGATIK?. GALDERA ETA ERANTZUNEN ISTORIAO.

Gure lagunari zergaitiez betetako istorio txiki bat kontatzea proposatzen dizuegu. Badakizue oso gustuko dituela galderak!

Istoriao galdera eta erantzunekin eraikitzen da, irakaslearen (narratzailea) eta neska mutilen (zergatien korua) ahotsa txandakatzen den sekuentzia baten bitartez.

Hona hemen eredu bat, narratzailearen arabera eraldatu daiteke:

Narratzailea: Orain lagun, ohera joateko ordua iritsi da.

Korua: Zergatiiik?

Narratzailea: Gaua delako.

Korua: Zergatiiik?

Narratzailea: Eguzkia lo egitera joan delako.

Korua: Zergatiiik?

Narratzailea: Oso nekatuta zegoelako.

Korua: Zergatiiik?

Narratzailea: Egun osoan zehar distiraka ibili delako.

Korua: Zergatiiik?

Narratzailea: Gozogileari argia emateko.

Korua: Zergatiiik?

Narrador: Bere sukaldea ongi ikus dezan.

Korua: Zergatiiik?

Narratzailea: Euliak harrapatzeko.

Korua: Zergatiiik?

Narratzailea: Euliz egindako izozki gozoak egiteko.

Korua: Oso gustuko ditut euli izozkiak! Ñam!

Narratzailea : Zergatiiik?

Nagusienekin, denon artean asmatutako istorioa sor daiteke, galderak eta erantzunak jarraian esanez. Taldea borobil batean jartzen da eta irakasleak hasi eta amaituko du kontaketa.

Profesor/a: Gaua hotza da.

Todos/as: Zergatiiik?

Niño/a 1: Asma ezazu galdera bat.

Todos/as: Zergatiiik?

Niño/a 2: Asma ezazu galdera bat.

... ..

Irakaslea: Eguzkia esnatu da eta eguna iritsi da.

Istoriao, parte hartzaile guztiek beraien ekarpena egin dutenean amaitzen da.

Kri Kra Kro

1



TEATRO PARAISO ANTZERKIA




Kri Kri Kro

2



TEATRO PARAISO ANTZERKIA



Kri Kri Kro

3



TEATRO PARAISO ANTZERKIA



Kri Kri Kro

4



TEATRO PARAISO ANTZERKIA

